



AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Santurtziko (Bizkaia) CPEIPS Sta. Eulalia HLBHIP eta CPEIPS Sta. Maria-Hijas De La Cruz HLBHIP ikastetxeen 2023-2024 ikasturterako ituna.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko irailaren 26ko Aginduak ebazten du 2023-2024 ikasturterako unitateen zehaztapena eta laguntzako langile osagarriak ituntzea; bai eta hezkuntza-itunen araubiderako sarbidea ere, 2023-2024 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko abenduaren 22ko Aginduak ebazten du ofizioz aldatuko direla 2023-2024 ikasturtean itundu beharreko unitateak zehazteari buruzko 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 17. artikuluan ezarritako itunak.

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 16ko Aginduak onartu egin zuen Santurtziko (Bizkaia) "Santa María-Hijas de la Cruz" Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena iraingitzea, udalerrri bereko "Santa Eulalia" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuan irakaskuntzak integratzearen ondorioz, eta aldatu egin zuen ikastetxe horren baimena.

2024ko apirilaren 30ean, agindu bat argitaratu da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, beste agindu hau aldatzeko: Agindua, 2024ko urtarrilaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, «Santa María Hijas de la Cruz» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena iraingitzea onartzen duena, udalerrri bereko «Santa Eulalia» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuan irakaskuntzak integratzearen ondorioz, eta ikastetxe horren baimena aldatzen duena. Aldaketa horrekin, 2024ko maiatzaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak aginduak.

Horretan oinarrituta, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Iraungitzea Santurtziko (Bizkaia) Santa María- Hijas de la Cruz itunpeko ikastetxe pribatuaren ituna, 2024ko maiatzaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena.- Aldatzea Santurtziko (Bizkaia) Santa Eulalia itunpeko ikastetxe pribatuaren ituna, 2024ko maiatzaren 1etik aurrerako ondorioekin, eranskinen arabera.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazi hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

Lurralde Historikoa	Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren Izena	Taldeak	Eredua	Zenbatekoa
Bizkaia	Santurtzi	CPEIPS Sta. Eulalia HLBHIP	HH I	Haur Hezkuntza I	1	B	26.524,47
			HH I	Haur Hezkuntza I	1	D	26.524,47
			HH II	Haur Hezkuntza II	6	B	159.146,82
			Lehen Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	12	B	333.405,28
			DBH I	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza I	4	B	153.967,00
			DBH II	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza II	4	B	173.197,01
			HB2	Ikasgela Egonkorra: Misto	1	-	38.656,56

**II. ERANSKINA**

<b>Lurralde Historikoa</b>	<b>Herria</b>	<b>Ikastetxea</b>	<b>Maila</b>	<b>Moduluaren Izena</b>	<b>Taldeak</b>	<b>Eredua</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Bizkaia	Santurtzi	CPEIPS Sta. Eulalia HLBHIP	Lehen Hezkuntza	Pedagogia Terapeutikoko Irakaslea	9	-	81.498,60
			DBH I	H. Berariaz Sendotzeko Proiektua	2	-	20.883,77
				Pedagogia Terapeutikoko Irakaslea	5	-	52.209,42
				Hezkuntza Laguntzeko Espezialista	17	-	116.852,50
			DBH II	Kurrikulum-aniztasuna	2	-	41.767,53
-							